



## ASARRE-ALDIJA

**Lauaxeta**

Iturria: *Antzerkia*, Lauaxeta (Jon Kortazarren edizioa). Euskal Editoreen Elkarte, 1990.

Klasikoen Gordailuan:

<http://klasikoak.armiarma.com/idazlanak/L/LauaxetaAsarreAldija.htm>

Klasikoen Gordailuak egindako lanak oro dominio publikokoak dira, eta, Jabego Intelektualaren Legearen arabera jatorrizko idazlanak bestelako eskubiderik ez baleuka, nahi bezala erreproduzi daitezke.

## ASARRE-ALDIJA

(atal bakarreko antzerkia)

Libe, gaztea oraindik, edertasun uts soina. Bordalde-jauna ixan zan zaldun baten alarguna.

Ibon, berrogei urtetan dabillan, landetxe zabalen jabea.

Iker, ogipeko zarra. Koldarra atan bere.

## LENENGO AGERRALDIA

*(Liberen landetxeko aretuan jazokun onek bere giarra edatu daroa. Emakumea yanzki baltzez yantzita dago, senarra ixan yakonaren erretratuari begira. Atetik berba-egiten dautso morroiak).*

**IKER:** Andere ori! Iltiari zagokijoz. Geyegija beti ixaten ei da txarra. Udabarria bekuzu: pozaren-pozan aldean darabille yenteak, eta oyanak-barna ibilli dabiltz. Praille-etxea bailitzan, zeure etxean esita, aretoari zagokioz. Batek badaki zenbat aldi igaro dan, at-urten bage bizi zarala!

**LIBE:** Eta bizitza oneik irauten daustan artean eztoztu Zetarako? Bizitzeak betiko agurra egin daust. A, illobian datzan ezkerro, neronen burua lau orma onein barruan esi bear dot. Biok illik gagoz.

**IKER:** Olakorik esateko bere! Etxejauna il bazan Goikoaren naiari zagoz. Negarrik lar egin dozu; egun orok-barna malko-dariola egotea ezyatzu eder. Gaztea baita, bizitza oraindik azi-barri dozu. Bidezkoa ezta orrelan noberen burua il-egitea.



Bestaldeko lagun guztiak bere aitzu egin dozuz. Etxe onek espetxea dirudi... Egunik gitxi-igaro, gudariak erri onetara etorri dirala. Buruzagi gazte ta lerdanak euren artean badi-ra ba... Yantzaketak egiten dabez. Bitartean zaran eder eta liraina izanik or zagoz... Edertasuna zeruko lorea da, ta alperrik ezta galdu bear. Joanak joan ziran. Urteak agur egingo dautzuen orduan, buruzagiei atsegin izan-gura arren, belutxu leitike... .

**LIBE:** (*Asarrez*) Ixilik zagoz! Olakorik esaten badaustazu barriro... Senarra il yatan egun aretatik barna, bizitzea naskagarria yat. Yanzki baltz oneik eztodazala kenduko, zin egin dot, bai? eta mundutik at biziko naz. Dantzuzu? Aren gomuteari loturik iraungo dot. Egia esateko, sarritan gogorra zan niretzako, baita ankerra berel; beste emakume batzuekin atsipetuten ninduan; neu baita beti izango nako leiala... Beste mundutik ikusiko dau emaztea izan yakon onek, ondo zainduten dautsola izen onaren dedua...

**IKER:** Orretarako urruntxu dagonentz irudituten yat... Andere ori! zeure baimenaz esango dautsut; buruko zorakeriak izaten dira olako gauzak. Negar eta zotinak barik, itunari josita egon bage, eguzki ederra artzera zoaz. "Tobi" zaldia zalpurdian ipini dagiela aginduten noa...

**LIBE:** Au da lorra! Ene Jaungoikua! (*Negar-dagi*).

**IKER:** Emakume orrek! zer dozu?

**LIBE:** Tobi ain maite eban ba-ta... Zaldirik kutunena yakon. Eta zelan erabilten eban zelai-zear! Gomutan al daukozu? "Tobi" gaxoa! galtsu geiago emoteko agindu egizu... (*Ateko-txilin otsa entzuten da*) Ene bada! Nor izan daiteke? Sarri esan darost iñor eztodala ikusi gura.

**IKER:** Ezaunen ganean nago. (*Doa*).

**LIBE:** (*Erretratuari begira*) Ikusiko dozu, ene Nikola neurea, zelan maite izaten dakidan, baita eginak aitzuten bere... Neure maitasun au ezta amaituko bizitzako arnasea galdu arte, bihotza igitu eziñik lotzen danean baño. (*Malkoak-barna barre egiten dau*) Lotzarik eztauko zu oker orrek? Alako orrek? Leial natzula, lau orma artean nago, zeu atsipelaria zintzan arren... Astirik askotan bakarrik neu itxita joaten zintzan... Lotxabako, lotxabako ori!

**IKER:** (*Artega dator*) Anderea, zutzaz zaldun batek itaunduten dau...

**LIBE:** Iñor eztodala ikusi gura ez ete dautzut esan ala?

**IKER:** Belarriak gortuta daukozanentz nago. Bearrezko-arloa ei dakarba...

**LIBE:** Ez-tot i-nor-i-ku-si-gu-ra!

**IKER:** Gizona ezeze aberea dirudi ostera. Eneueanean jo! Jatoki jabe egin da.

**LIBE:** Ene Jaungoikua! olako lotsabakorik! Datorrela. (*Iker doa*) Zer gura ete dau gizon orrek? Zegaitik bake au naaztuten dau? (*Zotinka*) Lekaimetxe batera joan bearko naz... (*Oldozkor*) Bai, lekaimetxe batera...

## BIGARREN AGERRALDIA

**IBON:** (*Ikerreri sartzean*) Gatz-bako ori! Astokillo ori! Itz bat esaten badot, belarriak aterako audaz! Etxekalte barrabasa! (*Libeganuntz zuzentzen da*) Nor nazan azaldutea atsegin yat, emakume ori. Goikouriataldetar Ibon, lenago gudari izana, orain ostera lugintzan dinarduen. Garrantsizko arazo batek zeugana ekarri nakar.

**LIBE:** (*Eskurik luzatu bage*) Zetan lagundu neuskizu?

**IBON:** Anei ta berreun laurleko zor izan eustezan zeure senarra izan zanak. Aren laguna izateak karu urten eustan. Ingirik badaukot gauzak garbi egiteko. Biar txindi-etxe baten zorrak ordaindu bear dodazan ezkerro, arren eskatuten dautsut laurleko

orreik emon dagitzazuzala.

**LIBE:** Anei ta berreun laurleko? Nire senarra izan zanak zegaitik zor izan eutsuzan txindi orreik ba?

**IBON:** Galtsua erosten eustan.

**LIBE:** (*Zotinka Iker-eri dirautso*) Tobiri galtsu geiago emotea ez aitzu. (*Iboneri*) Senarra izan yatan arek zor baeutsun, ordaina atzemango dozu. Gaur oster egin emon al izango dautsut eta asketsi, arren. Etzi datorren ezkerro uri onetara, neure txindizaiña, aginduan ganera ordainduko dautsu ziur-ziur. Gaur ezin dagiket. Ganera, gaur dira saspi illebete neure senar ona il zala eta umore txarrean nago.

**IBON:** Neuk bere eztaukot on-ona ba. Biar ordaindu ezik etxea kenduten dauste. Ondatuko nabe, ulertuten dozu ala ez?



**LIBE:** Etzi artuko dozu zeure txindia.

**IBON:** Etzi ez, gaur bear dot.

**LIBE:** Gaur ezin ordaindu nagike.

**IBON:** Etzirarte nik bere ezin itxadon nagike ba!

**LIBE:** Baña eztiñautzut txindirik eztaukodala?

**IBON:** Orduan eztaustazu ordaindu gura, ezta?

**LIBE:** Ez.

**IBON:** Azkenengo itza dozu?

**LIBE:** Bai, azken itza auxe.

**IBON:** Bein da betiko?

**LIBE:** Bein da betiko.

**IBON:** Ederto dago. (*Sorbaldeari eragiñez*) Eta gero ikeratu egiten dira kirio biziagiak eukiten doguzala-ta! Arrano-pola! Kiriotsu ezeze zoratuta lotuteko bere naiko da au! Txindi billa nabil egun bi oneitan, jo ona ta jo ara. Goitik bera, betik gora, baña alperrik. Zor daustenan ateak jo dodaz, baña, bai zera! Nekaturik banabil, gozez, deabruak eroateko gai enazala. Eldu naz ona amaikatxu kilometrorik egin ostean, neurea dana eskatuten atan bere, eta ordaindu bearrean umore txarrean dagoala ez diñauts? bailartxu ete dan nago.

**LIBE:** Esan dautzut etzi etorriko dala neure txindizaiña...

**IBON:** Baña nogaz ulertu bear naz ni; zeugaz edo zeure txindizaiñagaz? Ze demoniñotarako bear dot nik zeure txindizaiñik?

**LIBE:** Zaldun orrek, asketsi. Ni enago olako berba egiteari oituta. Eztot orrelakorik entzun iñoiz. Eztot zeure arnasarik bere senti-du gura. (*Doa*).

**IBON:** Bai polita; Deabruak eroan begiz olako emakumeak, eta euren umorea! Sapi illabete ei dira senarra il yakola. Eta niri zer? Txindi etxeari ordaindu bear dautset edo ez? Ene emakume liraiña! Iñoren burlerik ezin jasan nagike. Adarra jotetik ez niri. Senarra il bayatzu, or konpon. Umore txarrean zagoz, umore emeslarian, baña niri eztautz ardurarik. Zer gura ete dozu egin dagidan? Zor dautsedanakandik egazkari baten sartuta iges egitea? Orma baten aurka neure burua ilko ete dot? Errekara jaurtiko naz edo ez? Ez, anderea ez. Samaraño nago! Eldu naz zor dausten baten etxera ta len-txuago urtenik ei dabil. Beste bategana noa eta lastotegian ostenduta dago. Bostkarrena moskor andiak ankaz bera darabil. Eta alarguntxu au osteria umore txarrean ei dago.

Bai... bai... eta batek bere eztauste ordaindu gura. Ezta... ezta niri iñok eztaust adarrrik joten! Makilleagaz atara bear-ko nabe emetik. Bur... asarreak itoten nau. Burukoak emon-go ete daust! (*Atetik sarateka*) Mutil!

**IKER:** (*Bildurrez sartzen da*) Zer aginduten dau jaunak?

**IBON:** Baso bete ur ekarrik edo oba dok sagardoa. Eta arin kaiku orrek! (*Iker at doa*) Baña zelako oldozkera. Etxea ondatuko yat, burutik eginik nago eta emakume liraiñ onek umore txarrean dagoelako txindi gauzari aditu ezin ei daust. Andren oldozketa!

Jaungoikuak izkera emon ba eutsen sikan bere! Orduan zer edo zer ulertuko geuntsen.

Alargun au begientzako ezta gauza txarra... polita da, liraiña, samurra, baña berba egiten asten danean... Itz egiten dabenean arin iges egiteko azkurea sortuten yat. Orrexegaitik andreen ondotik urrun ibiltan beti izan da neure atsegina. Gurago dot dinamitzako upel baten ganean jezartea. Burutik atara nau emakume lirain onek. Txerrenaren emakume barrabasa. Urrundik ikusten badodaz bere, gexorik geratuten naz.

**IKER:** (*Basu bete uregaz*) Anderea ez dago ondo eta ikeraldirik ezyako atsegin.

**IBON:** Zeer? Astokillo ori! Ardura andirik ez daust orregaitik. Azkenengo ordaiña artu arte enaz emendik joango. Ementxe egongo naz, egunetan, illetan, urteetan bearbada. Adarra jotetik niri ez. Niri yanzki baltzakaz, sispuruakaz eta malkoakaz? Ezta... Ezta.

(*Leiorantza elduta sarataka*) Anton, zaldia askatu egizak. Luzaro egon bear yoaguk emen eta. Oiua emon egiek len bai len, eta ez gitxikan. (*Areto erdian paraten da*) Ondo enago. Gau guztian lorik egin barik nago ta andratxu onek odoldu nau. Ardo kopatxo batek osatuko al nau... (*Otska*) Mutil!

**IKER:** Zer aginduten dau jaunak?

**IBON:** Ardao kopatxo bat ekark. (*Iker doa*) Ene bada, nekaturik nago! (*Ispillura*) Eta lerdene naz gero! Autsez beterik, oskiak basaz loituta, aurpegia osteria, garbi baño loiago dodala, galtauz beterik buruko uleak dodazala, ederto etorri naz. Alargun orreri lapurra nazala irudituko yakon. Areto baten olan agertzea, ez da asikera ona izango, baña tira... Ezkongai eran enaz etorri, zorrak kobratzera baño. Neugaitik edozer



nazala uste badau bere, eztaust ardura andirik. Or konpon Mari Anton.

**IKER:** (*Eltzen da*) Olakorik artzeko ez daukola eskubiderik esan gura dautsat, iñoren etxean dagolako...

**IBON:** Zer? Zer?

**IKER:** Ezerez... esan gura izan dot...

**IBON:** Astotxar orrek berba egiteko adorea daukok? Agoa zabalduten badok neuk... (*Ikerrek arin urteten dau*) Agure zar lotsabakoa. Granujea! Bestelako astoa da orixe! Neuri berba egiten bil-dur barik paraten ezta ba? Gorrotoak itoten nau. Aurrean jarten danari burua birrinduko dautsot! (*Edaten dau eta ots dagi*) Mutil, beste kopatxo bat.

## IRUGARREN AGERRALDIA

**LIBE:** Zaldun ori, neure bakartasun onetan aldi asko igaro dodaz berbarik entzuten enebala, eta ezin jasan nagike orrelako saratarik. Arren, eskatuten dautsut ez dagizula otsik egin eta alar-gun baten oñazea ontsat artu daizula.

**IBON:** Ordaindu egiztazu zorra, eta laster nago txaidean.

**LIBE:** Esan dautzut len bere; orain ezin ordaindu naizizula. Etzirarte itxadon.

**IBON:** Baita neuk bere esan dautsut: Gaur biar dodala txindia, ez barriz etzi. Gaur ordainduten ezpadaustazu, neure burua il bear-kot dot. Zu poztuko zeintikez oiz, baña neuri atsegin andirik eztaust emoten. Ez arranotan!

**LIBE:** Baña dirurik ezpadaukot zer gura dozu dagidan be? Buru gogorra zara!

**IBON:** Orduan gaur eztaustazu ordainduten, ezta?

**LIBE:** Ezin nagike.

**IBON:** Ederto. Emetik enaz jeikiko ordaiña emoten eztaustezun artean. (*Jezarten da patxada ederrean*) Etzirarte eztaustazu ordainduten ezta? ementxe jezarrita eukiko nozu etzirarte. Ondo nago. (*Asarre altzaten da*) Esan egiztazu: Bankuari ordaindu bear dautset edo ez?

**IBON:** Jauna ez bai saratarik egin. Gorta batean bere etzagoz eta!

**IBON:** Bankuetzaz berba egiten dautset eta berak osteria gortea dakar arira. Emakumeen oldozkera zer da gero!

**LIBE:** Ez ete dakizu emakumeekin berba dagizula edo?

**IBON:** Zer jakin bear dot! Gauza gatxa da benetan. Gurago nuke kañoi baten agoan egoan bai? emakumeen artean baño.

**LIBE:** Lotsabakoa zara gero! Azikera oneko gizon batek onela eleuke berba egingo.

**IBON:** Ze barrabas! Zelan berba egingo dautsu ba? Zezeka, pantzeraz? (*Asarrez berba egiten asten da*) Madame, je vous prie... permettez moi... avec le plus grand respect... Oso atsegin yat ene emakume ori, zorra eztaustazulako ordaindu gura. Asketsi min egin badautsut... Egun garbi ta ederra ezta, ene andra eder ori? Yanzki baltzak erara yatortzuz. Liraiña zara zu benetan... (*Burleka antzean agur egiten dautso*) Onela berba egin bearko dautsut ezta?

**LIBE:** Papaukeri ta astakeria!

**IBON:** Kontzo! (*Berak egin daben legez*) Papaukeri ta astakeria. Il nozu ba! Zer egingo ete dot orain? (*Beste era batera*) Ezagoz ondo, emakumeekin berba egiten eztakidala uste badozu. Zuk artatxoriak baño nik emakume geiago ikusi dodaz. Andrak dirala-ta iru bidar neure burua sartu dot erritan ebiltzazenen artean. Amabi emakume bertan bera itxi nebazan eta beste bederatzik neu itxi ninduen. Goiko Jaunari eskerrak, andrak zer diran badakit. Bai emakume ori! Neu bere antzina biotzbera nintzan, maitalaria, biguna, zotin egiten neban eta illargiari adi gau luzean egoten nintzan. Maitasunari nengoala neurtitzak esaten neutsezan, amalauko ederto landuak egiten nebazan. Sarri biotzetik berba negian. Emakume guztiak eraulgiten neba[za]n. Geiagotan astoan antzean eztot ibilli gura. Agur! geiagotan enaz jausiko esku samurrak egiten dabezan sare gogorretan. Begitxu baltzak, espantxu gorriak, izketa samurrak, illargiari agur samurrak, niretzako gauza atsegingarriak baziran bere gaur ezer ezta-be balio... Emen dagozanak eztakit, baña beste guztiak, aldakorak, guzurtiak, irainlariak, arroak, zoroak, ziztriñak, okerrak, eurokoiak, atsipekorrak eta labanak dira. Euren oldozkera aldatz bera doa. Burua zelakoa daben ikusteko artatxori bateri aditutea neiko da. Artatxori batek buru geiagoko dauko gonadun pilosopa batek baño. Kanpotik guztiak



zarie gauza ikusgarriak. Yanzkiak, lanoak, pitxiak eta abar, baña gogora aditu daigun eta agur! kokodrilo batek gogo obea dauko. (*Aurkiari oratuten yako*) Eta ganera geien minduten nau, maitatuteko gai zariela uste zebek izatea. Onak eta samurrak zariela uste dozue...

**LIBE:** Jauna, mesedez alde egizu emetik...

**IBON:** Ez, amaitu artean eztot urten gura. Zeure antzekoen erruz asko jasan izan dot eta barriro bere esan bear dot emakumeak eztirala maitatuteko gai. Maitasuna dala esaten dabena, ezta gizonak atsipetuteko sarea baño. Gizonak benetan lan egiten daben artean ogia irapazteko, emakumeak negar-enpuluak ixuriten dabez ispillu aurrean. Atsipetuten gabez eta barre atzetik egiten dabe pozik. Esan egidazu mesedez emakume orrek, andra on, leial, iraunkor, apal, maitekor bat ezagutu ete dozun. Ez, ez eta ez. Zarrak eta motzak izaten dira soil soilik leial on eta samurrak, baña beste biderik eztaukielako. Andra on bat baño lenago aurkituko geunke adardun katu bat edo sei ankadun idia.

**LIBE:** Eta gizonak iraunkorrek dirala esango zeunke?

**IBON:** Bai orixe! Eta barriz diñotsut, baietz!

**LIBE:** Gizonak! Maitasunean iraunkorrek dirala, esatea bere. Ja, jai! Ori ganorabakokeria! Gizonetan onena, neure senarra zana. Nik biotzez maite neban, samurtasun larrez. Neure gaztaroa, ogasuna eta bizitza emon neutsezan. Bera zan niretzako Goiko Jauna eta agortuten neban itzalez... Eta berak oster... gizon onena zan arek... sarri atsipetuten nindudan. Il dan ostean bere ingi artean emakume askoren idazkiak aurkitu dodaz. Aste luzeetan bakarrik itxiten ninduan eta neure aurrean beste batzuri maitasuna opalduten eutsen, eurekaz barreka ete olgetan etxeko ogasunak txaturik. Eta gauza oneik gora-bera maite neban eta leiala, izan nintzaion. Orduan ez bakarrik; ilta ostean bere leiala naiako. Lau orma onein artean sartu naz eta bizitza guztian egongo naz yanzki baltzak kendu bank.

**IBON:** (*Barre biguna espanetatik kendu barik*) Ezaitetz nigana etorri yanzki baltzen kontuakaz. Atzamarrak mizkatuten nagoala uste ete dozu ala? Badakit zegaitik zagozan lau orma artean eta baltzik yantzita; Genza entzungarria eta olerkarientzako emakume goralgarria izateko. Gudaritxu batek edo ulezapazto-

dun olerkari batek leio aspitik igarotean esango dau: Emen bizi da emakume liraiñ bat, bizitzan espetxetu eta. Baña nik ondo ezagututen dodaz olako gauzatxuak...

**LIBE:** (*Asarre*) Olako gauzak zelan diñostazuz gero?

**IBON:** Bai anderea. Bizirik zagozala espetxean sartu zara, baña etzara aitzu, aurpegiko autsak ipinteagaz eta dotore yantziteko zapiakaz.

**LIBE:** Geldi or! Olan itz egiteko baimenik eztaukozu.

**IBON:** Niri ez olako otsik gero! Edo zeure morroia nazala uste dozu! Gura dodana esateko azke jaio naz. Enaz emakumea, guzurrar parraparra agoan erabilteko eta saratarik ez egistazu egin.

**LIBE:** Sarata egiten dabena zeu zara, zeu. Emetik utikan!

**IBON:** Ordaindu egistazu zorra, bai? eta laster naz kanpoan.

**LIBE:** Eztautzut ordainduko!

**IBON:** Eztaustazula ordainduko? Bai zera!

**LIBE:** Lauko bat bere ez! Entzuten ete dozu? Urte bete barruan artuko dozu zeure dirua, ez beluago eta ez lenago. Utikan neure etxetik!

**IBON:** Andere ori, enaz zeure senarra, ezta zeure ezkongia bere, ta saratarik ez egistazu egin (*Jezarriten da*) Saratarik etzat atsegin.

**LIBE:** (*Asarre bizian*) Jezarri egiten al zara?

**IBON:** Bai, emakume polit ori.

**LIBE:** Mesedez urten egizu emetik.

**IBON:** Neure dirua ekarri.

**LIBE:** Eztot itzik egin gura olako morroi lotsabakoakin. Bazoaz? bazoaz?

**IBON:** Ez!

**LIBE:** Ezetz?

**IBON:** Ez!!!

**LIBE:** Ederto! (*Tinbrea joten dau. Iker dator*) Iker, lagundu egiozu jaun oneri ateraño.

**IKER:** (*Ibonen ondora doa*) Jauna, mesedez.... Andereak aginduten dau...

**IBON:** (*Jeikiten da*) Ixilik ago alper andi ori! Aurpegia kenduko aut! Zati-zati egin bear aut, alako ori!

**IKER:** (*Bildurrez atzerantza egiten dau*) Koldobika!

**IBON:** Eztago iñor bere etxean. Berretxikoak atzituten guztiak dabiltz goiko oyanean eta...

**LIBE:** Kanpora!!!



**IBON:** Fintxuagoa ez zara izango? Yanzki baltz asko ta labankeri gitxi daukazu zuk!

**LIBE:** (*Ukubillak sarratu eta ostikoka asarre*) Lotsabako bat zara, abere bat eta artza bat!

**IBON:** Zeer? Zer diñozu?

**LIBE:** Abere bat, artza bat zarala, diyot!

**IBON:** Asketsi baña... orrelan irainduteko baimenik eztozu.

**LIBE:** Eta atzalbenak eskatuten daustazuz? Uste al dozu bildur natzula edo? Ez zagoz bide onean ez. Alkar iltera goazan!

**IKER:** Ene Jaungoikoa, au bildurra, au!

**IBON:** Goazan ba!

**LIBE:** Bildurtuko nozula uste ete dozu, indartsua zaralako ala? Idien samea daukozu baña eztautzut bildurrik. Abere ori! artza ori!

**IBON:** Tira alkar iltera goazan. Iñori ezin itxi neikio neure burua irainduten naiz emakumerik lirainena izan.

**LIBE:** Artza! Artza! Artza!!!

**IBON:** Etzagoz artezean gizonak bakarrik irainen alde erantzun bear dabela uste badozu. Emakumeak gizonak beste izan gura daben ezkerro, eginkizun bardinak daukez. Alkar iltera!

**LIBE:** Alkarren arteko burrukea gura badozu, ondo dago.

**IBON:** Beingoan.

**LIBE:** Bai, oraintxe. Pistola bi itxi eustazan senarrak. (*Atetik urteteen atzera sartzen*) Zelako pozagaz sartuko dautzudazan tiro bi buru aundi orretan!!! Deabruak eroan zagizala!

**IKER:** (*Belaunbiko*) Jauna, erruki zakiguz! Emakume baita... pistolakaz zer egingo dau?

**IBON:** (*Ari entzun barik*) Auxe baidala emakumeen egiazko azkatasuna! Il gura dot, onelan asteko bein emakumeen azkatasun ori. (*Ixillik*) Baña zelako emakume ederra da berau gero! (*Liberen antzera berba eginik*) Zelako pozagaz sartuko dautzudazan tiro bi buru aundi orretan! Deabruak eroan zagizala! Ikusgarria da andra au! Eta ze gorri geratuten dan, begi biak sua jaurtiten dabela. Eta alkar iltea ontzat artzen dau. Egiz diyot, neure bizitza guztian eztoz olakorik ikusi!

**IKER:** Jauna, arren, zoaz emetik! Goikoari bizitza guztian otoi egingo dautsot zeure alde.

**IBON:** (*Aditu bere egin bage*) Barrabana. Zelako andratxua dan! Egiazko andrea eta ez usainez eta autsez beterik dagoan kirio txor-tea! Sua ta txingarra! Tamala izango leitike ori iltea!

**IKER:** (*Negarrez*) Jauna, arren eskatuten dautsut...

**IBON:** Bai, atsegin yat emakume au. Zorra bere parkatuko neuskio... Emakume gelgarria da, arranodala!!!

## LAUGARREN AGERRALDIA

**LIBE:** (*Pistola biaz*) Emen dagoz pistolak. Baña alkarrerri su egin baño len, zelan erabilli bear diran erakutsi egiztazu. Nik eztoz iñoiz pistolarik eskuetan erabilli, bai? eta jakin gura neuke.

**IKER:** Jesus, Andra Maria eta Santu guztiak!!! Egiz alkar iltera doaz! Yentea billa noian arin...

**IBON:** (*Pistoleari begira*) Ara... era askotako pistolak dagoz gizonak ilteko. Emakumentzat osteria eztaikit ba... Alkarren aurka egitekoak iru tirokoak dira. Ederrak! Ogei ogerleko balio dabez. Pistolea onelantxe artu bear da eskuetan. (*Aparte*) Orreik begiak! Ene bada, zelako begiak! Suzko dirudi ta suar aundia piztuko leuke biotzean...

**LIBE:** Olan? (*Pistolea eskuetan atzemanik*).

**IBON:** Bai... olantxe. Gero onelan egiten da... besoak luzatu apur bat eta.... Apuntau ondo eta gero tramankullu oneri eragin... Burua atzerago jarri. Baña bakez bere bakez zagoz, kiriosu egon barik. Ez larri ibilli. Bularrera su egistazu... A... aitzu yat buruan sartu gura daustazula tiroa! Ondo dago, burura apunta egistazu ba eta apur bat berago... olantxe su egin...

**LIBE:** Baña emen ezkara alkar ilten asiko. Lorategira goazan.

**IBON:** Goazan: baña nik tiroa gora jaurtiko dodala oraindik dirautzut...

**LIBE:** Zelan! Ezta, on eztozu egingo. Zegaitik?

**IBON:** Zegaitik... zegaitia neure gain dago...

**LIBE:** Bildurtia zaralako! Ezta? Baña eztaustazu igesik egingo! Lorategira, lorategira. Enaz egongo bakean tiro bat buru aundi orretan sartu artean! Nazkagarri yatan buru orretan sartu bear dot... Orain bildur zara ezta?

**IBON:** Bai, bildur naz.

**LIBE:** Guzurre! Zegaitik eztozu tiroa jaurti gura?



**IBON:** Zegaitik... zegaitik... maite zaitudalako! ! !

**LIBE:** (*Barreka eta asarrez*) Ja, ja, ja. Maite nozula! Eta lotza barik diñosta-zu? (*Atera adi*) Zoaz ortik... (*Ibonek itxiten dau pistolea mai ganean eta ginbaila arturik aterantza dagi. Biak alkarrerri adi lotzen dira liparrean*).

**IBON:** (*Libegana dator samurkiro*) Entzun egiztazu... Oraindik asarre zagoz? Neu bere txerren bat eginik nago ba... eztaikit zelan esango dautsudan... (*Sarataka asten da*) Barrabana! zer egingo dot nik ba, atsegin bazayataz? (*Esku biakaz alkiak atzemoten dauz eta karrask dagie*) Zelako alki bigunak diran oneik. Bai ba, maite zaitut, biotz samurtuta nago.

**LIBE:** Zoaz emetik! Gorroto bizia dautsut eta!!!

**IBON:** Goiko Jauna! Zelako emakumea! Olakorik eztot ikusi neure bizitza guztian. Galdua naz. Jausi naz emakume onek jarri daustan lakirioan. Astoa naz gero!

**LIBE:** Zoaz edo su egingo dautsut.

**IBON:** Jaurti egizu! Begi orrein menpean iltea lakorik! Zelako atsegina niretzako zeure eskuak jaurtiko tiroak iltea. Egiz, zoratu naz! Neure andrea gura dozu-izan? Oldoztu ta erantzun. Osterantzean banoa eta ezkara geiagotan alkar ikusiko. Erantzun arin. Jaun aberatza naz, amar milla ogerleko daukodaz errentetan, zaldi ederren jabe naz... eiztari onena naz. Gura dozu neure emaztea izan?

**LIBE:** (*Larri dabil pistolea eskuan dabela*) Ez, ez, alkar iltera, lorategira!

**IBON:** Zoratuko naz! Nazan astokilloa!

**LIBE:** Alkar iltera goazan!

**IBON:** Bai, zoratu naz! Ikasle bat legetxe maitalari egin naz. (*Liberen eskuan oratuten dautso. Onek sarata dagi*) Maite zaitut! (*Belaunbiko*) Iñoiz maitatu eztodan eran maite zaitut! Amabi emakume itxi dodaz eta bederatzik laga nabe, baña zeu legebatz bat eztot maitatu. Ona emen beingo batean gizona bigunduta, maitalari biurtuta. Belaunbiko eskua eskatuten dautsut. Au lotsagarria! Iñoiz eztautset neure buruari parkatuko zorakeri au! Bost urtean egon naz iñor maitatu barik... eta orain... Erantzun egidazu. Bai edo ez? Eztozu nai? Zer egingo dogu ba... (*Aterantza doa*).

**LIBE:** Itxadon egizu...

**IBON:** (*Atzera adi*) Zeeer?

**LIBE:** Ezerez. Zoaz... Edo itxadon... Ez, ez zoaz! Gorroto zaitut! Bazenki zelako asarrea daukodan. (*Pistolea jaurtiten dau alde batera*) Zer egiten dozu emen oraindik? Zoaz!!

**IBON:** Agur!

**LIBE:** Bai, zoaz. Entzun oster... Ez, ez zaitut ikusi gura... asarre nago. Ezaitte nigana eldu.

**IBON:** (*Beragana dator*) Astoa naz! Ikasle baten antzera nabil. (*Lotsa barik*) Emakume ori, maite zaitut! ze demoniño! Biar ordaindu bear dautsedaz lanen sariak txindietxeari eta asto baten antzera maitalari egiten naz! (*Gerritik oratuten dautso*).

**LIBE:** Olakorik ez! Eskuak geldi! Gorroto zaitut! Bai gorroto! Alkar iltera goazan!.. (*Mosu bat emoten dautso Ibonek. Onetan agertzen dira atean Iker eta etxeko beste guztiak garrote, atxur eta zigorrakaz. Libe anderea ikustean Ibonen eskuetan, lotsen dira ate aurrean*).

**LIBE:** (*Eurekana biurtuten da lotsaz eta barreka*) Guztiok alde egizue. Orain etzaituet bear eta... Jaun au eta ni ulertu gara.

(*Euzkadi, 31-5-29/31-5-31*)